Arartekoaren 2023R-1826-2021 Ebazpena, 2023ko otsailaren 23koa. Honen bidez, Segurtasun Sailari gomendatzen zaio pertsona batek edo bere lege ordezkariek salaketa aurkezteko asmoa agertzen dutenean, Ertzaintzak bere jarduna arlo horretan indarrean dagoen legedira egokitu dezan, nolanahi ere, salaketa aurkeztea bultzatuz, legean tasatutako kasuetan salbu, bereziki sexu erasoen delitu baten biktima direnean, eta diziplina zehapen bidez zigor daitekeen polizia jarduketa bat salatzen duen edozein herritarren salaketa azkar izapidetu dezan.

Aurrekariak

1.- Kexagileak Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen, adierazi zuenez, bere hamabost urteko alabak (...)ko Ertzain Etxean (...)ean jaso zuen tratua dela eta. Alaba aitarekin eta kexagilearekin berarekin joan zen ertzain etxera (...) hilabete lehenago jasan zuen sexu erasoa salatzera.

Interesdunak uste du alabari eman zitzaion tratua ez zela une horretan bizi zuen kalteberatasun bereziko egoeran behar zuena, kontuan izanda adingabea eta une horretan salatzen ari zen sexu erasoaren biktima zela.

Amak azaldu duenez, alaba, deklaratzerakoan, negarrez eta izututa zegoen, artatu zuten ertzainek, tonu ez enpatikoa eta ahots altxatua erabiliz, zalantzan jarri zutelako adingabearen kontakizunaren egiazkotasuna, zirudienez sinesgarritasun gehiago eman zioten beste norbaitek egindako deklarazioarekin ustez ez zetorrelako bat. Ertzainek behin eta berriro jakinarazi zioten gazteari "gezurra esatea delitua zela eta horrek izango zituen ondorioen berri" eman zioten, eta adingabeari sentiarazi zioten ez zutela sinesten ematen ari zen testigantza. Izan ere, salaketa izapidetzean, artatzen ari ziren ertzainek bulegotik alde egin zuten, adingabeari eta haren gurasoei salaketaren izapidetzearekin jarraitu nahi zuten ala ez hausnartzen uzteko.

Emandako informazioaren arabera, kexagileak jasotako tratuarekin ados ez zegoela agertu zuen, kexaren termino berdinetan, (...)ko Ertzain Etxean 2021eko abuztuaren 24an aurkeztu zuen idatzi bidez, eta ez zuen erantzunik jaso 2021eko irailaren 3an erakunde honetara jo zuenean.

2.- Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera jo zuen planteatutako gaiez informa zezaten.

Aipatutako sailak erakunde honi helarazitako azalpenen arabera, (...)an, goizean, "*se acogió a la menor, de forma preferente, con la mayor delicadeza posible, dando respuesta a su necesidad de equilibrio emocional, siendo atendida por personal del mismo sexo (Jefa del grupo de investigación), a través de una escucha asertiva, dispensándole un trato respetuoso, tratando de establecer una relación empática con la menor, para transmitirle confianza y seguridad, en lugar cómodo y discreto, que preservase su intimidad, sin interrupciones y sin personas ajenas*".

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Era berean, adierazi da barneko ikerketa prozedura bat egin ostean, poliziaren jarduketa bide egokitik gauzatu zela egiaztatzeko eta, hala badagokio, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzeko, "*se entiende que ésta se ha desarrollado según los procedimientos establecidos y no existe elemento objetivo alguno que haga suponer que se hayan producido de otra manera. Por ello, se concluye que el proceder de los agentes de la Ertzaintza fue correcto, adecuado y educado, utilizando un lenguaje acorde con la edad de la víctima y circunstancias del hecho, dirigiéndose a ella en tono afable y de confianza; y atendiendo de manera escrupulosa tanto al ordenamiento jurídico como a las propias normas internas de control y Código Ético*".

Azkenik, jakinarazi da kexagileak egindako kexaren erantzuna jaso zuela (EKIN/2021/XXX) 2021eko azaroaren 6ean, (...)ko Ertzain Etxeko Informazio Zentroko buruaren partetik.

3.- Interesdunak (...)ko Ertzain Etxean 2021eko abuztuaren 24an aurkezturiko idazkiarekin loturiko dokumentazio berria bidali zigun. Hain zuzen ere, Ekinbide Segurtasun Publikoko Sistema Hobetzeko Herritar Ekimenen Bulegoko arduradunak berari bidalitako hiru idatzi aurkeztu dira.

Lehenengoan, jakinarazi zitzaion 2021eko irailaren 14an bere idatzia bulego hartan erregistratu zela eta, aztertu ondoren, gehienez bi hilabeteko epean emaitzaren berri emango ziotela.

Bigarrenean, 2021eko irailaren 24ko data duena, jakinarazi zitzaion, bere kexan jasotako gertakarien edukia aztertu ostean, Barne Gaietarako Zerbitzuari helarazi zitzaizkiola, egiaztatu zitzan eta, hala bazegokion, beharrezko diziplina neurriak har zitzan, gertakariak diziplina garrantzia izanez gero (bi idatzi horiek salatzailearena ez den helbide batera bidali ziren).

Azkenengoan, 2022ko martxoaren 17ko data duena, honako hau azaldu zen: "*Gertaera aztertu ondoren, Barne Arazoetarako Buruzagitzak jakinarazitakoa helarazten dizugu, uste baitu ertzainen portaera maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Disziplinazko Araudia onartzen duenaren, 10.5 artikuluan sar daitekeela, bertan hutsegite arintzat jotzen baita hau: "Herritarrekiko edo beste Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideekiko zuzentasunik eza, larriagotzat jo ez dadinean*". Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 144.3 artikuluko edukiaren berri eman ostean (bertan hilabeteko preskripzio epea ezartzen da falta arinetarako), adierazi zitzaionez, *hutsegitea ezin zenetik igaro den denbora aintzat hartuta, hutsegitea jada preskribatuta egongo litzateke,* eta beraz, ertzainen diziplina erantzukizuna iraungi egin zen.

4.- Aipatutako idatzien eta erakunde honetara bidalitako erantzunaren edukia ikusita, sailari zenbait gai jakinarazi zitzaizkion, Arartekoarentzat izugarri deigarriak izan baitziren (2021eko irailaren 24ko idatziari emandako kalifikazioa;

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

izapidetzearen denbora sekuentzia; eta interesdunari eta erakunde honetara ertzainen jokabideen balorazio desberdina bidali izana).

Aldi berean, sailaren lankidetza eskatu zen berriz ere, (i) salaketa Barne Gaietarako Zerbitzuari edo Ertzaintzako langileei dagokienez diziplina ahala baliatzeko organo eskudunari helarazten atzeratzeko arrazoi zehatzak azaltzea; (ii) garatutako barne ikerketa ezagutzea; eta (iii) Barne Gaietarako Burutzak polizia jarduna arau hauste arin gisa justifikatzeko arrazoiak ezagutzea, eta ez kalifikazio larriago batekin.

Bidenabar, eskatu zen aurretiazko informazioen edo salatutako jokabidea falta arintzat jo daitekeela zehazteko izapideturiko prozedurari dagokion administrazio espedientearen kopia bat emateko, baita administrazio horrek kexa eragin duten gertakariak argitzeko eta kexagileak egindako galderei erantzun arrazoitua emateko interesgarritzat jo zuen beste edozein informazio ere.

5.- Sailak erakunde honi helarazi zion informazioaren arabera "*Ante la posibilidad de que los hechos pudieran constituir una falta disciplinaria leve; concretamente al Art. 10.5: " La incorrección con los ciudadanos con otros miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, siempre que no merezca una calificación más grave"; y cumpliendo con el procedimiento que establece el régimen disciplinario en su Capítulo II artículo 42: "El órgano competente para sancionar por faltas leves, al recibir comunicación o denuncia o tener conocimiento de una supuesta infracción de la mencionada clase, incoará un procedimiento por medio del cual verificará la exactitud de los hechos y comprobará si los mismos están tipificados en alguno de los apartados correspondiente"; por tal motivo, la Jefatura de Unidad de la Ertzain-etxea de (…) solicitó un informe a los Agentes implicados en los hechos*".

Erantzunean azaldu duenez, salatutako gertaerak eta ertzainen jarduna aztertu ondoren, (…)ko Unitateko Burutzak ondorioztatu zuen jardun zuten ertzainek kexagilearen alabari emandako tratua izan zela "*trato adecuado, que se utilizó un lenguaje acorde a su edad y a las circunstancias del hecho, dirigiéndose a ella en un tono afable y de confianza*"; horrenbestez, jardun horretan ez zuten antzeman diziplina falta arina eragingo zuen omisio edo ekintzarik.
Jarraian, sailak jakinarazi duenez, "*el día 14 de septiembre de 2021, se trasladó la iniciativa (queja, denuncia…) "Ekinbide" al Servicio de Asuntos Internos de la Ertzaintza, siendo éstos los competentes en la incoación de expedientes disciplinarios en casos de comisión de faltas graves y muy graves".*

Ondoren, azaldu du Barne Gaietarako Zerbitzuak ikerketa bat egin zuela; gertatutakoa eta sexu askatasunaren aurkako balizko delitu bat salatzearen haritik bideratutako diligentziak aztertu zituen; berriz ere deklaratzailearekin eta senarrarekin (adingabearen ama eta aita) elkarrizketa bat izan zuen; eta txosten bat eman zuen, eta bertan ondorioztatu zuen ertzainen jarduna ez zela izan EAEko polizia kidegoen diziplina araubideko falta larria edota oso larria, eta arauren bat hautsi izanaren kasu hipotetikoan, "nolabait egokitu zitekeela" maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuko 10.5 artikuluan, falta arina zela medio; eta, igarotako denbora zela medio, faltak preskribatu egin zuela.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Horrenbestez, ondorioztatu da (...)ko Ertzain Etxeko Unitateko Burutzari (falta arinak hasteko eskuduna) ekimena 2021/08/24an jakinarazi zitzaiola, eta ebazpena 2021/09/06an eman zuela, preskribatzeko nahitaezko hilabetearen barruan, eta, egun horretan bertan, burutza interesdunarekin harremanetan jarri zela, barne ikerketen emaitzen berri emateko eta sexu askatasunaren aurkako delituetan poliziak jokatzeko prozedura azaltzeko.

Halaber, adierazi denez, Ertzaintzako Barne Gaietarako Zerbitzuari (falta larriak eta oso larriak hasteko eskuduna) ekimena 2021/09/14an jakinarazi zitzaion, eta falta larri edo oso larririk ez izateari buruzko ebazpena 2021/10/22an eman zuela, hori ere falta larriak edo oso larriak preskribatzeko nahitaezko aldiaren barruan.

Horren haritik, jakinarazi da (...)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzak, ez zuenez antzeman diziplina falta arina eragingo zuen ekintzarik edo omisiorik, ez zuela espedientea bideratu; bidenabar, Ertzaintzako Barne Gaietarako Zerbitzuak, ez zuenez ertzainen jardunean falta larri edo oso larrien zantzurik ikusi, ez zuen diziplina espedientea hasi.

Orotara, ondorioztatu denez, "*en ningún momento del procedimiento interno la actuación de los Agentes fue calificada como falta leve, grave ni muy grave, sino qué finalizadas las investigaciones internas, tanto por parte de Jefatura de Unidad de (...) como del Servicio de Asuntos Internos de la Ertzaintza, se concluyó que la actuación de los Agentes se había ajustado al procedimiento, que el trato hacia la menor fue correcto, educado, adecuado, utilizando un lenguaje acorde con la edad de la víctima y las circunstancias del hecho. De todas estas circunstancias fue diligentemente informada la madre de la menor".*

Gogoetak

1.- Aurretiaz, gogoratu behar da interesdunak 2021eko abuztuaren 24an aurkeztutako idatziak izenburu hau zuela: "*Petición de sanción y otra exigencia hacia dos agentes del grupo x"* ; eta, hamabost urteko adingabea, gurasoak eta ertzainak zeuden gelan gertatu zena kontatu ondoren, beharrezko zigorrak ezartzeko eskatu zuela; aldi berean, bi ertzainek barkamena eska zezaten ere exijitu zen, alabari emandako tratu desegokiagatik, aintzat hartuz alaba kalteberatasun bereziko egoeran zegoela, kontuan izanda adingabea eta une horretan salatzen ari zen sexu erasoaren biktima zela.

Horren haritik, Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoen irailaren 29ko 181/2015 Dekretuko 3. artikuluak modu honetan desberdindu zituen kexa eta salaketa:

> *"a) Kexak: haren jarduera-eremuko jarduerei, zerbitzuei eta prestazioei buruzko atsekabe-adierazpenak.*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

b) Salaketa: haren jarduera-eremuko agintarien edo langileen etika profesionalarekin eta jokabide-arauekin bat ez datozen jokabideei buruzko jakinarazpenak".

Horrenbestez, aipatutako idatzia bi ertzainen jokabidearen berariazko salaketa modura hartu behar da, salatzaileak salagarritzat jotzen zuena; izan ere, ez du soilik adierazi ez dagoela pozik jaso duen zerbitzuaren kalitatearekin.

Izapidetzeari dagokionez, lehenago aipatutako irailaren 29ko 181/2015 Dekretuak aipatu zuen araudi berezia duten erreklamazioak edo salaketak eta ekintzak egitearen ondoriozko izapidetzea ez dagokiola Ekinbideren jarduera eremuari (4.2b art.), eta "*ekimen batek egintzatzat, erreklamaziotzat edo salaketatzat jo daitezkeen elementuak izanez gero, Ekinbidek, arrazoi horrengatik ekimena osoki edo partzialki ez onartzeaz gain, dagozkien organo ebazle eskudunei bidaliko die, eta horren berri emango dio interesdunari. Ekinbidek espedienteen egoerari buruzko informazioa bildu ahalko du organo eskudunetatik*" (10.2 art.).

Bigarren informazio eskaeran, Arartekoak azaldu zuen ez dela garrantzirik gabeko kontu terminologiko bat, prozedura eskakizunei eta erantzuteko denborei buruz baitihardugu. Hori horrela, Administrazioari jakinarazten zaiona falta gisa tipifikatuta egon daitekeen jokabide bat denean, aurretiko eginbide batzuk ireki beharko lirateke edo diziplina prozedura bat bideratu beharko litzateke, berehala; izan ere, salaketa bat zerbitzuen okerreko funtzionamenduagatiko kexa bat bezala izapidetzeak agerian jartzen du prozesu bakoitzeko arau erregulatzaileak nahasten ari direla eta behar bezala tipifikaturiko arau hausteak burutu dituzten funtzionario publikoak zehatu gabe geratzea eragin dezake.

Arautzaileak gai horri eman dion garrantzia maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren 62. artikuluan ere badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araudia onetsi zuena; izan ere, ezarri zuenez, araudi horretan jarritako epeak ez betetzeak ekar dezake Administrazio eta/edo funtzionario errudunek erantzukizuna dutela legeak ezarritako kasu eta terminoetan.

Bada, prozeduraren eskakizunak eta erantzuteko denborak errespetatu beharrak lotura zuzena du aurkeztutako salaketa izapidetzeko denbora sekuentziarekin eta balizko zigorrean izan duen eraginarekin; gai horri aurrerago helduko diogu.

2.- Sailari bigarren informazio eskaeran azaldu zitzaionez, Arartekoak nabarmendu nahi du erakunde honi oso kezkagarria iruditzen zaiola, salatzaileak dioenez, salaketa izapidetzean, artatzen ari ziren ertzainek bulegotik alde egin izana, adingabeari eta haren gurasoei salaketaren izapidetzearekin jarraitu nahi zuten ala ez hausnartzen uzteko. Ertzainen jokabide horrek eragin zezakeen hamabost urteko adingabe batek eta, horrenbestez, ustezko erasotzailearen partetik garrantzi penala duen jokabide baten biktima batek salaketa ez aurkeztea.

Horrez gain, deigarria da adingabeari emandako tratua, amak desegoki gisa salatu duena; izan ere, bere kontakizunaren arabera, adingabeak harremanetan eman ahal

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

izan zuen baimena zehaztera bideratu zen, eta zalantzan jarri zen alabaren testigantzaren egiatasuna, inkongruentziak omen zeudelako bere lagunen adierazpenetan. Kexagilearen arabera, agenteak ez ziren saiatu ziurtatzen sexu harremanik egon zen edo ez, hori baitzen benetan garrantzitsua, kontuan izanda biktimaren adina.

Prozedura Kriminalaren Legeak ezarri duenez, salaketa egiteak ez du esan nahi salatzaileak salatu dituen egitateak frogatzera behartuta dagoenik. Horregatik, salaketa egin eta gero horiek egiaztatu, egileak identifikatu eta lekukoen aitorpenak emango dira, baita funtzionario jarduleek horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten eginbideak ere, salbu eta salatutako egitateak delitu izaerarik ez badauka, edo salaketa ageriki faltsua bada.

Ikuspuntu formal batetik, agenteen aurrean egindako deklarazioa salaketa bat zen, Prozedura Kriminalaren Legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen zituelako. Horrela, bere burua aurkeztu, salaketa aurkezteko asmo argia adierazi eta arau hauste penal bat izan zitekeen gertaera bat kontatu zuen, Zigor Kodean hamasei urtetik beherakoei egindako sexu eraso gisa tipifikatutakoa. Ez da ahaztu behar salaketa bat aurkeztea salatzailearen jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridikoa eta tutoretza judizialera sarbidea izateko eskubidea modu librean erabiltzeari dagokiola.

Horrez gain, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 50.2 artikuluak azaldu zuenez, "*Los miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad actuarán de conformidad con los protocolos de actuación policial con personas menores de edad, así como cualesquiera otros protocolos aplicables*", eta berariaz aurreikusi zuen kasu guztietan zehaztutako irizpideen arabera jokatuko zutela, tartean honako hauen arabera: *"e) Se permitirá a las personas menores de edad, que así lo soliciten, formular denuncia por sí mismas y sin necesidad de estar acompañadas de una persona adulta"* y "*g) Se dispensará un buen trato al niño, niña o adolescente, con adaptación del lenguaje y las formas a su edad, grado de madurez y resto de circunstancias personales".*

Arartekoak, Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu abusua eta sexu esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideei buruzko maiatzaren 18ko 2/2021 Gomendio Orokorrean gomendatu zuenez, ertzain etxe eskudunaren edo tokiko udaltzainen egoitzen jarduna zela, kasu bakoitzean, salaketa jaso, ikerketa hasi eta polizia diligentziak irekitzea, eta, horrek, besteak beste, barne hartzen zuela berehala jakinaraztea guardiako epaitegiari (edo Fiskaltzari, erasotzaileak adingabeak izanez gero) eta zigor ikerketan, atzerapen justifikatu gabe hasi behar dena, une oro saihetsi behar dela adingabea berbiktimizatzea, eta galdeketak zentratu behar direla polizia ikerketaren alderdietan (autorea identifikatu edo aurkitzeko balio duten datuak, esaterako), eta ez delitu gertaerak kontatzean.

Halaber, Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 3.1 artikuluak honako hau ere adierazi zuen: *"Toda víctima tiene derecho a la protección, información, apoyo, asistencia, atención y reparación, así como a la*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

participación activa en el proceso penal y a recibir un trato respetuoso, profesional, individualizado y no discriminatorio desde su primer contacto con las autoridades o funcionarios, durante la actuación de los servicios de asistencia y apoyo a las víctimas y, en su caso, de justicia restaurativa, a lo largo de todo el proceso penal y por un período de tiempo adecuado después de su conclusión, con independencia de que se conozca o no la identidad del infractor y del resultado del proceso".

Horrez gain, testu arautzaile honen 5.1 b) artikuluak azaldu zuen biktima orok, aginte eta funtzionarioekin lehen kontaktua duen unetik, salaketa aurkeztu aurreko unea barne, berehala informazioa jasotzeko eskubidea duela, bere inguruabar eta baldintza pertsonaletara, egin den delituaren izaerara eta pairatutako kalte eta galeretara egokitutako informazioa, hain justu ere, *"derecho a denunciar y, en su caso, el procedimiento para interponer la denuncia y derecho a facilitar elementos de prueba a las autoridades encargadas de la investigación".*

Gauzak horrela, ertzainek salatutako gertaeren egiazkotasuna zalantzan jarri izana, 2021eko abuztuaren 24ko idatzian azaldu denez, eta erakunde honetan aurkeztutako kexak, ezin du inolako justifikaziorik izan, berriz ere esan behar dugun moduan, hamabost urteko adingabe baten kasuaz ari garenean, eta, horrenbestez, ustezko erasotzailearen (horren aurkakoa da aurkeztutako salaketa) partetik garrantzi penala duen jokabide baten biktima denean.

Are harrigarriagoa da salaketa izapidetu zutenen jarduketa hau, kontuan izanda, erakunde honek salatzailearen eta komunikabide baten bitartez jakin duenaren arabera, Ertzaintzaren datu basean jasotzen zela salaturiko pertsona atxilotua izan zela 2017. urtean sexu erasoak egiteagatik. Eraso horiek, ustez, hamalau urteko neskato bati egin zizkion. Informazio hori ez bazen egiaztatu Ertzaintzaren datu-basean salaketa aurkeztu zen unean, ez zen beharrezkoa izango salaketa hau izapidetzen zuten ertzainen ikerketa erakustaldi handi bat.

Azken finean, aurretik azaldutako guztia aintzat hartuz, kexagileak salaketa aurkezteko asmo argia zuenean ertzainek salaketa formalizatzearen inguruko edozein zalantzan jartze da, Arartekoaren aburuz, lege bide egokietatik ez doan polizia jarduna, eta delitu baten ustezko erruduna aske uztea eragin dezake, justiziaren mende jarri gabe. Izan ere, hizpide dugun kasuan, salaketaren ondoren ustezko erruduna epaitegien esku utzi zen, eta behin-behinean espetxeratzea agindu zen, komunikatuta eta fidantzarik gabea.

3.- Bestalde, ertzainak inpartzialtasunez jokatzera derrigortuta daude, eta beren funtzioek behar duten errespetu eta konfiantza galtzea ekar dezakeen jokabideak saihestea; halaber, tratu zuzena eta egokia izan behar dute herritarrekin dituzten harremanetan, enpatiaz jokatuz (uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 24. eta 25.1 art., Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu Bategina onartzen duena, aurrerantzean EAEPL). Horrez gain, arauak eskatzen du formei arreta berezia jartzea eta hartzaileek iraingarri, errespeturik gabeko edo abusu gisa antzeman dezaketen iruzkinik ez egitea.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Adierazitako moduan, kexagileak zalantzan jartzen du kexak aipatutako agenteek azaldutako betebeharrak errespetatzea. Segurtasun Sailak, ordea, agenteen jarduteko modua zuzena izan zela dio. Zehazki, honako hau aipatzen du: "*en ningún momento del procedimiento interno la actuación de los Agentes fue calificada como falta leve, grave ni muy grave, sino que finalizadas las investigaciones internas, tanto por parte de Jefatura de Unidad de (…) como del Servicio de Asuntos Internos de la Ertzaintza, se concluyó que la actuación de los Agentes se había ajustado al procedimiento, que el trato hacia la menor fue correcto, educado, adecuado, utilizando un lenguaje acorde con la edad de la víctima y las circunstancias del hecho*".

Adierazi den moduan, kexa honen helburu den polizia jarduketa errespetatu behar zituen arauen araberakoa izan zela defendatzeko eta diziplina falta arinik ez zegoela argudiatzeko oinarri hartzen dituen arrazoiei dagokienez, Segurtasun Sailak erakunde honi emandako motibazio zehatz bakarra izan da (…)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzak hala baloratu zuela 2021eko irailaren 6an, gertaeretan inplikatutako ertzainei eskatutako txostenaren ondoren.

Horrenbestez, ondorio horren arrazoiek kexagilearen bertsioaren aurkakoa hartu dute oinarritzat; ulertzen dugunez, kexan aipatutako ertzainek emandako bertsioa da, erakunde honetara ez delako bideratu ez (…)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzak eskatuta eman zen txostena, ez jardunari dagokionez burutzaren balorazio txostena, nahiz eta gertatutakoa argitzeko garatutako barne ikerketaren edukia eskatu, baita salatutako jokabidea falta arintzat jo daiteken edo ez zehazteko izapideturiko prozedurari dagokion administrazio espedientearen eta aurretiazko informazioen kopia bat ere.

Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, "*Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa*" (II.1.1 atala) azaldu zen esfortzu serioa egin behar dela gertatu zena argitzen saiatzeko eta eskura dauden arakatze aukera bideragarri guztiak agortu behar direla gertatutakoa argitzeko. Adierazi da kexan aipatutako agenteek gertakariei buruzko beste bertsio bat emateak berez ez duela balio beste ikerketa batzuk baztertzeko edo jardueraren egokitasunari buruzko iritzi baten oinarri gisa erabiltzeko. Era berean, kexak ikertzean, ez da nahikoa esku hartzean parte hartu duten agenteen lekukotasuna jasotzea, salbu eta beste ikerketa jarduera batzuk egiteko ezintasuna justifikatzen ez bada; era berean, agenteen bertsioa ezin da besterik gabe ontzat eman.

EAEPLk berariaz jarri zuen EAEko poliziako langile eta aginteen jarduna Poliziaren Etikari buruzko Kode Europarrari dagokionez Europako Kontseiluaren Gomendioaren mende (22. artikuluko 2. paragrafoa) eta horrek, bidenabar, estatu kideei gomendatu zien ikerkuntza sustatu eta bultzatzea.
Horren haritik, EAEPLek agindu argia eman die EAEko polizia kidegoei dagozkien administrazio publikoei, ustezko jardunbide txarren kasu nabarmenak ikertzeko eta kexak tratatzeko prozedura eraginkor eta inpartzialak ezartzeko, erantzukizuna

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

sustatuko dutenak eta oinarritzat hartuko dutena herritarren eta poliziaren arteko ulermena eta komunikazioa (13.2 artikulua).

Egia da, sailak adierazi duenez, EAEPLeko 142. artikuluan zein Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araudia onetsi zuen maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren 25.2 artikuluan adierazi zenez, falta arinen ondoriozko zehapenak ezartzeko ez da nahitaez aurretiaz diziplina espedientea bideratu beharko, horretarako bideratutakoa, eta diziplina prozedurari buruzko II. Tituluak aipatutako zehapen prozedurarekin bat etorriz, errudunari entzunaldi izapidea salbu, berdin jokatu behar da jarraitu beharreko prozedura II. Tituluko II. Kapituluan aurreikusitako arauen arabera arautzean.

Hala, adierazitako arau erregulatzaileak honako hau ezarri zuen 42. Artikuluan *"Hutsegitearinengatiko zigorrak jartzeko eskuduna den organoak, jakinarazpena edo salaketa jasotzean edo aipatu motako Arau-haustea ustez gertatu dela jakitean irekiko du prozedura, eta horren bidez egiaztatuko du gertaerak zehaztasunez nola gertatu ziren eta idazatiren batetan tipifikatuta dauden*".

Horrenbestez, izapide gutxiko prozedura da, baina ez zaizkio funtsezko bermeak faltatzen eta, horrenbestez, gertatutakoa zehatz egiaztatzeko, organo eskudunak ikerketa jarduera propioa egin behar du eta egiazkotasuna egiaztatu behar du, are gehiago ertzainek gertatutakoa ukatu egiten dutenean, kasu honetan, gure susmoen arabera, gertatzen den moduan; izan ere, berriz ere nabarmendu nahi dugunez, Arartekoari ez zaio horren inguruko dokumentaziorik eman.

Arartekoaren aburuz, hortaz, ertzainen deklarazioak, esan bezala Segurtasun Sailak oinarritzat hartzen duena alderdi eztabaidatuan jarduna zuzena izan zela justifikatzeko eta falta arina ez dela ondorioztatzeko, bada deklarazioak ezin du berez horrelako judizioa sostengatu eta ez da urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako jarraibideekin bat datorren ikerketa bat (II.1.1 atala).

4.- (...)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzak 2021eko irailaren 6an lortutako ondorioarekin jarraituz, eta premisa berdinarekin, arraroa edo, gutxienez, harrigarria da 2021eko irailaren 14an Ekinbidek salaketa bere bulegoan erregistratu izana eta egun horretan bertan Barne Gaietarako Zerbitzura igortzea, gertatutakoa egiaztatzeko eta, hala badagokio, behar diren diziplina neurriak hartzeko, gertatutakoak diziplina garrantzia izanez gero.

Lehenik eta behin, arraroa da soilik egiaztatze diligentzia egokiak egin ondoren falta arinaren ondoriozko ebazpen zehatzailea emanez gero jo beharko litzatekeelako maiatzaren 3 ko 170/1994 Dekretuko 45. artikuluko prozedurara, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araudia onetsi zuena.

Hala, organo eskudunak falta arinaren ondoriozko zehapena jartzeak dakar Segurtasuneko sailburuordeari aurretiaz jakinaraztea, eta une horretatik bost egun igaro ondoren kasuan kasuko buruak ez badu gelditzeko agindurik jaso, orduan zehapena ezartzea dagokio. Bada, agindu hori organo eskudunak ematen badu

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

diziplina espedienteak hasteko, aldi berean edo ondoren honako hauek egin ahalko dira:

> *"a) Disziplinazko espedientea irekitzeko agindua eman dezake, gertaerak hutsegite oso larria edo larria izan badaitezke.*
> *b) Iharduketekin aurrera jarraitzea erabaki dezake, eta ezinbestekoak izanik, egin ez direnak egitea. Kasu horretan, egin ondoren horien emaitza errua egotzi zaionari helaraziko zaio, bost eguneko epean egokitzat jo ditzan alegazioak egin ahal izateko.*
> *c) Iharduketak behin-betirako largestea erabaki dezake, gertaerek inolako hutsegiterik egiten ez dutelako".*

Hau da, organo eskudunak, falta arinen ondoriozko zehapenak ezartzeko, egiaztatze diligentziak egin ondoren, jarduketak artxibatuz gero (lehenago aipatutako Dekretuko 42. eta 43. artikuluak) ez da 45. artikuluko izapideetara jo behar

Arau aurreikuspen horiek ikusita, deigarria da organo eskudunak juridikoki falta arintzat jo ez duen jarduketa batek, ulertu delako prozedurara egokituta dagoela eta biktimaren adinerako tratu egoki eta edukazioz bideratu zela, bada deigarria da jarduketa horrek kalifikazio juridiko larriagoa jaso dezakeela arau hauste bat egin delako, hain zuzen ere organo eskudunak antzeman ez duen arau hauste larriagoa bat egin delako.

Bigarrenik, arraroa da, azaldu dugun moduan, (...)ko Ertzain Etxean aurkeztutako idatzia salaketa bat zelako eta, horrenbestez, salaketa hori izapidetzea ez dago Ekinbideren eremu funtzionalean. Horren arrazoien berri ez dugun arren, Ekinbidek horren berri eman beharko lioke organo eskudunari, prozeduraren kasuan kasuko ebazpena emateko eta interesdunari ere jakinarazteko, hala eskatzen baitu irailaren 29ko 181/2015 Dekretuak.

EAEPLko 143. artikuluaren arabera, Ertzaintzako kideei diziplina zehapenak ezartzeko eskumena honi dagokio:

> *"a) Zerbitzutik kentzeko zehapenetarako, Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena daukan sailburua.*
> *b) Falta oso astun eta astunengatiko zehapenetarako, Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena daukan sailburuordea, egitura organikoan zehaztutakoaren arabera.*
> *c) Falta arinengatiko zehapenak ezartzeko, eskudunak izango dira, aurreko organoak ez ezik, zehatzaileak zerbitzuan dauden poliziaetxeetako edo unitateetako buruak ere".*

Hala ere, salaketa idatzia Barne Gaietako Burutzara bideratu zen, gertatutakoa argitzeko.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 18ko Aginduarekin bat etorriz, Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzen duena, Barne Gaietarako Burutzaren ardura da funtzionarioen jokabide profesionalari buruzko ikerketak zuzendu, koordinatu eta garatzea, aintzat har daitezkeenak indartzeko eta legearen edo etika profesionalaren aurkakoak prebenitzeko. Horrez gain, Ertzaintzaren diziplina politika definitzen, koordinatzen, bultzatzen eta garatzen laguntzeko berariazko eginkizuna du; horretarako, prebentzio neurriak antolatu eta diziplina prozedurak bideratuko ditu.

Erakunde honi jakinarazi zaionez, Barne Gaietarako Zerbitzuak, polizia jardun baten egokitasunari buruzko judizioa argudiatzeko, *barne ikerketa* bat egin zuen, eta, horren baitan, ikertze jarduerak eta diligentziak egin zituen, inplikatutako agenteen deklarazioaz gain beste gauza batzuk ere barne hartuz. Horren ondoren, ondorioztatu zuen ez zela falta larria edo oso larria, baina "nolabait egokitu zitekeela" maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuko 10.5 artikulura, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araudia onetsi zuena, eta bertan honako hau aurreikusi zen falta arin modura: "*Herritarrekiko edo beste Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideekiko zuzentasunik eza, larriagotzat jo ez dadinean*", baina une honetan dagoeneko preskribatuta egongo litzateke.

Epaitze horrek, salatutako kasuan, desadostasuna dakar jarduketaren kalifikazioan, Barne Gaietarako Zerbitzuak antzeman baitzuen jokabide arau hauslea falta arina zela, eta, horrenbestez, subjektu arau hausleek erantzukizuna zutela, baina aurretiaz jarduketa artxibatzea proposatu zen.

Zehaztasun gehiagorik gabe, argi dago disfuntzio edo anomalia bat izan dela ertzain horien jardunaren aurkako salaketa izapidetu edo ikertzean.
5.- Sailak ez dio erakunde honi inolako informaziorik eman kexa eragin zuen polizia jarduketa zuzena izan zela ondorioztatzeko aintzat hartu dituen judizio elementuei edo ikerketari dagokienez. Ez du ikerketaren edukien kopiarik aurkeztu, ezta barruan egindako ikerketa jarduketen edukien kopiarik ere, eta erakunde honek berariaz eskatu zituen.

Arartekoak eskatutako informazio horri dagokionez, erantzunean sailak soilik adierazi zuen "*al no apreciarse ninguna acción u omisión constitutiva de falta disciplinaria leve, no instruyó expediente*" eta "*al no observar indicios de falta grave o muy grave en la actuación de los Agentes, no incoó expediente disciplinario*".

Hala ere, aldez aurretik, eta idatzi berean, interesdunaren salaketak jarraitu duen denbora sekuentzia eta izapideen xehetasunak jakinarazi zizkion Arartekoari, (...)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzaren zein Barne Gaitarako Zerbitzuaren partetik. Hala, eta sailak aipatu duen arren, "espedienterik" ez dagoela dioen argudioarekin, Arartekoari ez zaio eman ez (...)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzak jasotako ertzain inplikatuen txostena, ez Burutzak ertzainen jardunaren inguruan egindako analisia, jakinarazitako ondoriora iristeko baliatutakoa. Horrez gain, ez daukagu Barne Gaietarako Zerbitzuak egindako barne ikerketari dagokion dokumentazioa, eta

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

horren jarduketak berariaz aipatu ziren erantzunean (gertatutakoaren analisia, bideratutako diligentziak sexu askatasunaren aurkako salaketaren ondorioz, beste elkarrizketa bat deklaratu duenarekin eta senarrarekin, hau da adingabearen gurasoekin); emandako txosten horretan ondorioztatu zenez, sailak erantzunean aipatu duen moduan, *"la actuación de los agentes no había sido constitutiva de falta grave ni muy grave del régimen disciplinario de los cuerpos de Policía del País Vasco, y que en el caso hipotético de haber infringido alguna norma "pudiera tener encaje" en el art. 10.5 del Decreto 170/1994, de 3 de mayo, por Falta leve; y que por el tiempo transcurrido, la falta habría prescrito".*

EAEko administrazio publikoen legezko betebeharra da Arartekoak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide oro lehentasunez eta premiaz ematea, Arartekoak bere egitekoak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa ez ematea gure lanari oztopoak jartzea dela dio legeak. Legez oztopatze bezala hartzen da eskatutako informaziorako sarbidea zailtzen duen jarduera oro (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. art.).

Beste batzuetan adierazi izan dugunez, Arartekoaren eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun osatugabeak ematea oztopo handia dira legez esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, eta asko murrizten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren eskubideak defenda ditzaten ezarritako tresnetako bat da Arartekoa—.

Arartekoak uste du Segurtasun Sailak ez duela kasu honetan aipatutako legezko betebehar hori zuzen bete. Aurretiaz esan dugun moduan, erakunde honek egindako galdera ugariri ez zaie erantzunik eman eta, gure ikuspuntutik, "espedienterik edo diziplina espediente formalik" ez egoteak ez du hori justifikatzen, jarduketa batzuk dokumentatu egin direlako, hala adierazi duelako sailak, eta, beste batzuk, esaterako elkarrizketak, ulertzen dugunez, horiek ere gertatu ziren, agiri erregistro bat existitzen delako, horietako askorena behintzat.

Azken finean, beste azalpenik ez badago, Arartekoak ez du arrazoirik antzeman Segurtasun Sailak dagokion lege betebeharra ez betetzeko, alegia erakunde honi eskatu duen informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko, idatzian ageri denez, informazio eta dokumentazio hori existitzen baita (gertaeretan inplikatutako ertzainen txostena, (...)ko Ertzain Etxeko Unitate Burutzaren ondorioen txostena, Barne Gaietarako Zerbitzuak egindako diligentziak -elkarrizketak, analisia...- eta ondorioen txostena).

Horregatik guztiagatik, honako gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Segurtasuna Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera:

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

GOMENDIOA

1.- Ertzaintzak bere jarduna Prozedura Kriminalaren Legean eta Delituaren Biktimaren Estatutuan ezarritakora egokitzea, pertsona batek edo bere lege ordezkariek salaketa bat aurkezteko asmoa agertzen dutenean, delitu gertaera baten biktima izan direla uste dutelako, aurreikusitako termino legaletan salatzailearen asmoa bultzatuz.

2.- Ertzaintzaren diziplina araubidea arautzen duen araudian ezarritako izapideak azkar jarraitzea, pertsona batek diziplina zehapen bidez zigor daitekeen polizia jarduketa bat salatzen duen kasu guztietan.

3.- Segurtasun Sailak interesdunak kexaren arrazoia den ertzainen jokaeraren zuzentasunari buruz adierazi dituen zalantzak argitzea eta justifikatzea zertan oinarritu zen jokaera hori zuzena izan zela esateko, eztabaidagarriak diren alderdiak aintzat hartuta. Azaldu dugunez, azalpenik ez da eman, erakunde honen aburuz.

4.- Beharrezko mekanismoak ezar ditzan Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra betetzea bermatzeko, aipatutako alderdietan eta oharretan aipatutako gainerako jardun ildoetan.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus